



❖ ERRUGBIA

9 entsaio eta 5 puntu

Hernanik erraz irabazi zion atzo BUC Bartzelona taldeari, 55-13, eta bonifikazioa lortu zuen, 5 puntu. Sailkapenean 5garren dira, orain, hernaniarrak. Bederatzi entsaio egin zituen atzo Hernanik: Iraitz, Oier eta Gutik, bana; Pelaz, Etxeberria eta Otxotorenak, bina. Bi asteko etena eta gero, liderraren kontra jokatu du urtarrilean Hernanik, Getxon. ||

❖ NABARRALDE - HITZALDIA GAUR

'Gipuzkoaren jatorria' bideoa ikusgai gaur, Biteri kultur etxean

Nabarralde bideoa aurkeztuko du gaur Biterin, 19:30etan, eta aurkezpena egingo dute Beñi Agirrek eta Angel Rekaldek. DVDa salgai izango Biterin bertan, 12 euroan, eta bihartik aurrera, Irizar tabernan.

«GIPUZKOA 1376an jaio zen. Ordura arte hiru eremu ziren orain Gipuzkoa den honetan, eta Nafarroako erresumaren barruan zeuden: Aitzorrotz, Ipuzkoa, eta Hernani».

13 udalerrri, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Nabarralde DVD berria atera du, Gipuzkoako historia kontatzen duena. Gaur, Biterin botako dute bideoa, 19:30etan, eta ondoren aurkezpen-hitzaldi moduko bat izango da, Beñi Agirrek eta Angel Rekaldek emana.

«Beste bertsio bat»

Bideoak beste ikuspuntu bate-

«Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia ez ziren bere borondatez sartu Castillan; konkistatu egin zituzten»

tik kontaktzen du Gipuzkoako historia. Orain arte esan izan da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba bere borondatez sartu zirela Castillan. Nabarralde dio, 1200 urtean konkista armatua izan zela, eta nahiko froga badela hori esateko.

Aditu askok hartu dute parte bideoan: Jose Luis Orella, Iñaki Sagredo, Idoia Arrieta... ||



Beñi Agirrek emango du hitzaldia, gaur.

❖ KANTUZ

Gabon Kantak gaur, 6 talderen eskutik

Urteroko Gabon Kanten kontzertua emango dute gaur, San Joan Bataiatzailea parrokian, Hernaniko 6 taldek. Parrokiko Abesbatza, Inmakulada Ikastetxea, Elizatxo Ikastola, Musika Eskolako Abesbatza, Goiz Eguzki Abesbatza eta Kantuz Abesbatza izango dira bertan, eta 13 kanta kantatuko dituzte. Kontzertua, 20:00etan. ||

❖ EZKER ABERTZALEA

Herri Batzarra gaur

Hernaniko Ezker Abertzaleak deituta, Herri Batzarra egingo dute gaur, 19:00etan Biterin. Gaia: *Arau Subsidiarioak: alegazioei erantzuna*. ||

❖ INMAKULADA

Antzerkia, dantza eta musika, gaur

Gaur, bihar eta ostiralean, Eguberriak ospatzeko ekitaldiak egingo dituzte Inmakuladan. Gaur bi kontzertu dituzte. 15:30etan, Sandiusterrin antzerkia, dantza, musika eta abesbatza izango dituzte, eta losune Marin ikasle ohia ere bertan izango da, Gipuzkoako Kantu Txapelduna. Arratsaldean, 20:00etan, Gabon Kanten kontzertuan izango dira. ||

❖ KONTRAKANTXA - IV URTEURRENA

Brindisean hasi, dantzan bukatu

KONTRAKANTXA Gaztetxeak aurten bete ditu lau urte, eta ospakizun astea izan zuten aurrekoa. Larunbata zen festa egun haundia. Eguerdian hasi zuten *maratoia*, brindisa eta trikibertsopoteoarekin. 14:00etan bazkaria eta monologoa izan zituzten, eta 21:30etan karaokea eta kontzertuak. Gazte asko bildu zen atzoko ekitaldian, eta baita aste guztian egin dituztenetan ere.

Angel Olan, gaur

Angel Olan misiolariak hitzaldia emango du gaur, 19:30etan, Kontrakantxan. ||



Kontrakantxa Gaztetxeko kideak, brindisa egin aurretik, larunbatean.

Keunka
MUEBLE RUSTICO

ORDUTEGIA
Ast.-Ost.
09:00-13:00
15:30-19:00
Larunbata
09:00-13:00
15:30-20:00

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

ZATOZ !!

ALTZARIAK ETA ARGITARIAK
AURREKO DENBORALDIETAKO
"STOCK"-a

MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK
DENA KOSTU PREZIOAN !!

OUTLET !!

OUTLET !!

OUTLET !!

Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81

www.keunka.com

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA **GAUR** Laino gutxi eta eguzkia nagusi zeruena. Hego haizea ibiliko da, eta tarteka zakarraldiren bat ere izango du. Termometroak berdintsu. Min.6° / Max.14°
BIHAR Haize zakarra izango dugu protagonista, eta lainoak ere ugari egingo dira. Euririk ez da espero, eta tenperaturak berdinean, hego-haizea ibiliko delako. Min.7° / Max.14° (euskaime)

Asteburua, ekintzaz betea Hernanin

Ostiralean hasi eta igandera bitartean ekintza asko egin dituzte Hernaniko talde eta elkarteek. Gabon garaia delako, edo urte bukaera delako, izan dira behintzat kontzertuak, urteurrenak, hitzaldiak eta bestelakoak hiru egunetan. Datorren bi asteetan ere izango da mugimendua Hernanin, festa giroa nahi duenarentzat.



Joxean eta Tomas txapeldun, musean. Karobi elkarteak 10 urte bete ditu aurtan, eta joan den larunbatean 80 lagun bildu ziren bertan, ospakizun afarian. Mus Txapelketako saribanaketa ere egin zuten. Aurtengo txapeldun: Joxean eta Tomas. Bigarren: Pina eta Ferrero. Hirugarren: Mikel eta Joxe. ■



Bigarren Eskuko Azokan, 40 postu. Joan den larunbatean Bigarren Eskuko Azoka egin zuten Hernanin, urteko azkena. 40 postu inguru izan ziren Atsegindegi plazan, eta herri-tarrek izan zuten aukera, gustokoa erosi, eta premizkoa saltzeko. ■



Txistu kontzertu 'erritmikoa'. Ez zen ohizkoa izan atzoko Txistu Kontzertua, Milagrosan. Susi Elosegiren gitarrak lagunduta eman zuen kontzertua atzo Txistulari Bandak, eta emaitza oso kurioa, ez-ohizkoa izan zen bertan bildu zen entzulearentzat. 8 kanta kantatu zituzten, txistularien melodiak eta gitarraren erritmoak elkar hartuta. Ondoren, luntxa denentzat. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† TEODORA BELAUNZARAN GARCAREN

ANDREA

Herenegun hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Anai-arrebak: Ambrosi (†) eta Hilario (†), Mamerta (†) eta Jacinto (†), Bernardo (†) eta Juli, Martin (†) eta Vicenta (†), Demetrio (†) eta Luisita (†), Hermenegildo (†) eta Claudia, Bautista (†), Ignacio (†), Maria Victoria (†) eta Sabino (†), Juana (†) eta Esteban (†), Elias (†) eta Luisa (†) eta Sofia (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 20an

Helbidea: Santa Maria Magdalena Egoitza.

Oharra: Gorputza HERNANIKO FUNERARIA ORBEGOZO TANATORIOAN gaur astelehena, goizeko 11:30ak arte egongo da.



RAMON UGALDE INSAUSTI

JAUNA

Atzo hil zen, 51 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Errotako Izeba eta Lehengusuak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, ASTELEHENA, arratsaldeko SEIETAN, Usurbilgo SALBATORE DONEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 20an



IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza alokagai Erenotzun, baserri batean. Toki lasaia eta eguzkitsua. 80m2 (600€). Deitu: 636 627 462.

Pisu bila nabili alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna).

Deitu: 600 609 754.

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukalde. Behean soziedaddea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 koxke). **Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzetan.** Deitu: 629 682 827.

Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). **Oso egoera onean, beti garajejan.** 26.500€.

Deitu: 658 058 330.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, **prezio bereziak eta pertsonalizatuak.**

"Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma birbrazzaile.

Atzietan 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ERREMONTEA		
Erreg. Oh. Maila	Hernani-Anaitasuna	1-1	1. partidua	Endika-Gaztelu/Zulaika-Barrene. IV	35-22
Emak. Liga	Ostadar-Hernani	0-7	Binakako T.N.	Zeberio II-Ion/Urriza- Etxeberria III	31-40
Erreg.1go maila	Hernani-Usurbil	0-4	3. Partidua	Ezkurra-Lizaso/Juaristi-Urrutia	40-34
Jubenil Liga Naz.	Erromo-Hernani	2-0	4. Partidua	Urtasun-Zubizarreta/Mabxin III-Aizpurua II	19-30
Kad. Oh. Maila	Hernani-Ondarroa	2-2	ARETO FUTBOLA		
Kad. 1go maila	Hernani-Ekintza	8-1	1go maila	Zurt taberna-Yone Boutique	5-3
Infantil Oh.Kopa	Vasconia-Hernani	6-1	BOLEIBOLA		
Infantil. Txiki	Real Sociedad-Hernani	6-0	Seniorkak	Lankide-Hernani	0-3
Infantil. Partehar.	Hernani-Pasaia	0-5	SASKIBALOAIA		
Alebinak	Beasain-Hernani	2-5	Seniorkak	Hernani-Easo Zahar	58-44
ERRUGBIA			Jubenila	Urola-Hernani	68-96
Senior A	Hernani-BUC Barcelona	55-13	Kadete A	Iraurgi-Hernani	61-41
Jubenila	Hernani-Ordizia	5-15	Kadete B	Hernani-Easo Zahar	41-47
Infantil 16	Hernani-Aletiko SS	5-21			

Vanesa eta Miguelo Harategia eta aurrez egindako janaria

ADI !!! ADI !!!

ONDO-ONDO PASA SANTO TOMAS EGUNEAN !!

BIHAR, ABENDUAK 21, SANTO TOMAS EGUNA

1kg TXISTORRA EROBITA

ARDO BOTILA DOAN !!

ZATOZ !!

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32